

Auto aseguru

Aseguru produktuari buruzko informazio dokumentua

Enpresa: Allianz Direct Versicherungs-AG Espainiako sukurtsala

Egoitza: Alemania

Baimen zenbakia: E0247

Produktua: Auto aseguru

Kaixo!

Eraz eta laburbilduta azaldu nahi dizugu auto aseguruaren modalitateetan sartzen den guztia, eta, gainera, argi izan dezazula zer ez dagoen sartuta. Kontratuaren informazio osoa polizaren dokumentuan eta aseguruaren baldintzetan kontsultatu ahal izango duzu, horiek arautuko baitute gure harremana.

Hala ere, laguntzeko gaude hemen. Dena irakurri ondoren zalantzarik baldin baduzu, gure 910789888 telefonora deitu dezakezu astegunetan, 9:00etatik 20:30era. Pozten gara zurekin hitz egiteaz eta zuri laguntzeaz!

Zertan datza aseguru mota hori?

Gidarizat duzun nahitaezko erantzukizun zibila estaltzen duen aseguru bat da, hirugarren bati zuk eragindako kalte-galerak estaltzeko. Gainera, kontratatzen duzun modalitatearen arabera, beste estaldura batzuekin osatu ahal izango duzu.



Zer aseguratzen da?

Aseguratutako autoarekin zirkulatzean ondasunei edo hirugarren pertsoneri eragindako kalteak. Hasierako bertsioa hirugarrenentzako aseguru oinarritzkoa da, eta modalitate bakoitzean estaldura gehigarriak gehitzen dira, aurrekoez gain:

Hirugarrenentzako oinarritzkoa

- ✓ Nahitaezko erantzukizun zibila, legez ezarritako zenbatekoetan: 15.000.000 € kalte materialetan, eta 70.000.000 € kalte pertsonaletan.
- ✓ Borondatezko erantzukizun zibila: kalteek aurreko zenbatekoa gainditzen badute, zenbateko gehigarria 50.000.000 € arte estaliko da.
- ✓ Gidari aseguru: 20.000 € arte.
- ✓ Kalteak erreklamatzeko eta defentsa juridikoa: gastuak estaltzen ditu; gehienez 1.000 euroraino, abokatu askatasunez aukeratuz gero.
- ✓ Bidaiako asistentzia, pertsoneri eta autoari, gau eta egun.
- ✓ Konponketa, Allianz Directen lantegi bikainetan.

Hirugarrenentzako, beirekin

- ✓ Beirak. Aseguratutako autoaren kristalezko beirak ordezkatzeko edo konpontzea.

Hirugarrenentzako hedatua

- ✓ Lapurreta
- ✓ Sutea
- ✓ Erosketa prezioa bermatuta, lehenengo matrikulazioa egin ondorengo 12 hilabeteetan.

Hirugarrentzako hedatu premiuma

- ✓ Gertaera meteorologikoen eragindako kalteak.
- ✓ Errepidean animaliekin talka egiteak eragindako kalteak.

Arrisku orotakoa

- ✓ Norberaren autoaren kalteak (frankiziaren mende egon edo ez).



Zer ez dago aseguratuta?

Hautatutako modalitatean esplizituki adierazi ez diren estaldura guztiez gain, ez dira ezein bermerekin estaliko:

- ✗ Polizan aitortu ez diren eta 26 urtetik beherakoak diren edo 3 urtetik beherako antzinatasuna duten gidariak eragindako kalteak.
- ✗ Ibilgailuaren gidariak, aseguruak, hartzaileak edo jabeak nahita eragindako kalteak.
- ✗ Gidabaimenik ez duten, Espainian balio ez duen gidabaimena duten, gidabaimena erretiratu duten edo gidabaimena iraungita duten gidariak eragindako kalteak.
- ✗ Gidaria edari alkoholduen, drogen edo substantzia psikotropikoen eraginpean dagoenean eragindako kalteak.
- ✗ Garraioak legearen edo zirkulazio baimenaren xedapenak betetzen ez baditu eragindako kalteak; adibidez, baimendutakoak baino bidaiari gehiago badaramatza.
- ✗ Autoarekin lasterketetan, lehiaketetan, erronketan eta haietarako entrenamenduetan parte hartzeak eragindako kalteak.
- ✗ Trafikorako baimenik ez duten bideetan —hala nola portu eta aireportuetako eremu mugatuetan— zirkulatzeak eragindako kalteak.
- ✗ Materiaren egitura atomikoa aldatzeak eta haren ondorioek eragindako kalteak.
- ✗ Apartekotzat kalifikatutako kalteak, Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoak estaltzen dituenak.

Zure polizari gehigarriak erantsi diezazkiokezu:

- ✓ Premium bidaiako asistentzia. Gidariaren ezintasunaren, lesioaren edo heriotzaren kasuetarako babesa gehituko diogu bidaiako zure estaldurari. Atzerrian laguntza medikoa izango duzu. Gainera, zerbitzuak mugarik gabe hedatuko dira matxurarik edo gorabeherarik (hala nola giltzen galera, erregai falta, erregai okerra eta zulatuak) gertatuz gero.
- ✓ Ordezko ibilgailua.
- ✓ Premium erosketaren prezio berrak, lehen matrikulazioetik 36 hilabete arte luzatuta.
- ✓ Gidariaren eta familiaren premium aseguruak: gidaria hiltzen bada edo baliaezin geratzen bada, aseguratutako kapitala 60.000 € arte hedatuko da. Gainera, gidaria edo haren ezkontidea hiltzen bada edo baliaezin geratzen bada, kalte-ordaina 150.000 € arte igoko da.
- ✓ Isunen defentsa eta gidabaimena kentzearen babesa.
- ✓ Lantegi aukera librea: Allianz Directen lantegi bikainetara ez ezik, zeuk aukeratutako lantegira ere joan ahal izango zara.



Estaldurari dagokionez, badago murrizketarik?

- ! Ezbeharra deklaratzeko betebeharra.
- ! Ezbeharra eragindako kalteak murrizten saiatzeko betebeharra.
- ! Ezbeharren kaltea konpontzen baduzu, aseguru etxearen alde aurreko baimenik gabe.
- ! Atoiei edo atoian eramandako ibilgailuei eragindako kalteak.
- ! Aseguru etxeak onartu ez dituen kalteen kostuak.
- ! Ezarritako epean ezbeharren berri emateko betebeharra.
- ! Laguntza ez ematearen delitua egin baduzu.
- ! Aseguruaren estalduretako batzuk frankizia bat aplikatzearen mende daude.



Non nago estalita?

- Estaldura guztiak, Kalteen Erreklamazioa eta Defentsa Juridikoa modalitatea izan ezik, estalita daude toki hauetan:
 - Espainian
 - Karta Berdea osatzen duten herrialdeetan, Iranen izan ezik.
- Kalteen Erreklamazioa eta Defentsa Juridikoa modalitatea estalita dago toki hauetan:
 - Espainian
 - Karta Berdea osatzen duten herrialdeetan, baldin eta inplikatuak ohiko bizilekua Europako Esparru Ekonomikoko herrialde batean badute.



Zein dira nire betebeharrak?

- Zure poliza jaulkitzeko eskatzen dizugun informazioak egungoa, zuzena eta egiazkoa izan behar du. Era beren, prezioaren eragina izan dezaketen inguruabar guztiak adierazi behar dituzu.
- Autoaren gidari buruzko informazioa eman behar diguzu, batez ere 26 urtetik beherakoei buruzkoa, bai eta gidabaimenarekin 3 urtetik behera daramaten gidariei buruzkoa ere.
- Irakurri eta egiaztatu itzazu kontratuaren baldintzak. Akatsen bat dagoela uste baduzu, esaguzu kontratua sinatu ondorengo hilabeteetan.
- Kuotak garaiz eta polizan adostu bezala ordaindu behar dituzu.
- Polizaren baldintzak onartu behar dituzu.
- Kontratua aldatzeko, esaguzu lehenbailehen.
- Ezbeharren bat izan baduzu, 7 egun dituzu zer gertatu den eta zer ondorio izan dituen esateko, kalteak egiaztatzeko eta baloratzeko behar den informazioa eta dokumentazioa emanda. Era berean, ezbeharren ondorioak arintzeko guztia egin behar duzu zeure aldetik, pertsonak eta ondasunak salbatzen lagunduz.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

- Polizaren hasieran eta urteroko berritze bakoitzean. Urteroko ordainketa erraztu ahal izango da, aldizkako ordainketetan zaituz, polizaren kontratazioan eskuragarri dauden baldintzen arabera.
- Poliza kontratatzen den egunean eta geroztiko epemugetan eskuragarri dugun edozein ordainbide erabil dezakezu ordaintzeko.



Noiz hasten eta amaitzen da estaldura?

- Polizek urtebeteko iraupena dute, eta luza daitezke berritze bakoitzean.
- Polizaren hasiera datatik zaude babestuta.
- Poliza bakoitzaren alta eta baja data ikus ditzakezu «Nire kontua» atalean sartuta; eta adierazita duzu polizaren dokumentuan eta Baldintza Partikularretako akordioaren iraupenean ere.



Nola hutsaldu dezaket kontratua?

- Zure poliza atzera bota dezakezu, poliza hori sinatu ondorengo 14 egun naturalean.
- Oro har, urtero amaitzen da kontratua, eta automatikoki luzatzen dugu.
 - Ez baduzu kontratua luzatu nahi, abisatu iezaguzu, mesedez, berritu baino hilabete lehenago.
 - Baldin kontratua berritu ezin badizugu, berritu baino bi hilabete lehenago jakinaraziko dizugu.